

ORANTZARO BEGIGORRI

Emakumea, dantzaria, sorgina, kalabaza...
Denetariko panpinaz beteko da Leitza

 **KULTURA** / Maider Iantzi Goienetxe

Leitzako Orantzaro desberdina da, izenetik hasita. Ez da ezagutzen dugun gizon ikazkina; emakumea da, txistularia, almadiazaina, amerikanoa... Alke kultur elkartearen lanari esker, adinekoek ezagutu zuten tradizio aberatsa berreskuratzen ari dira, ilusioz, pixkanaka-pixkanaka. Balkoiak eta leihoak panpin harrigarritz beteko dira bihar.

Leitzako Alke kultur elkartea duela hamar urte hasi zen bertako Orantzaro berreskuratze lanean. Juan Mari Barriola eta Fernando Oiartzun kideek kontatu digute testigantzak jaso zituztela

eta abenduaren 24 gaueko antzerkia prestatzen hasi zirela Aurrera elkartearekin. «Leitzako eredua berreskuratu nahi genuen, galduta baitzegoen. Zaharrek esaten zuten hemen Orantzaro ezberdina zela Euskal Herri osoan indartu den ikazkinaren ereduarekin

Juan Mari Barriola eta Fernando Oiartzun Alke kultur elkarteko kideak, Leitzako plazan dagoen Orantzaroren muralaren ondoan. Mikel Alkoz herriko artistak margotua da irudia.
Iñigo URIZ | ARGAKZI PRESS

konparatuta. Lehenago edozein modutako panpina jarzen zen, ez zuen ikazkina izan behar. Emakumezkoak ere jarzen ziren, gainera», azaldu digu Barriolak.

Antzerkia oinarri baten gainean eraiki nahi izan zuten eta garai honetako oinarria solstizioa da. Eguberri hitzak «egun berritzea» erran nahi du. Solstizioaren isla da, eguzkia indartzen hasiko dela ospatzeko aroa. Antropologoek lanak irakurritan, suarekin hasi ziren lanean. Gero, jende heldua elkarriketatzean, ohartu ziren suak garrantzi berezia zuela.

Hori dena etxean aditutakoarekin uztartu zutela dio Oiartzunek. «Nik askotan entzuten nuen, baina gaztetan ez nuen kasurik egiten. Gure

Leitzako kanta:

*Orantzaro begigorri,
non harrapatu dok arrai
hori?*

*Anikeko barriketan,
bart gabeko hamaiketan.
Zer habillen garai hartan?
Zeruko izarran kontaktetan,
lurreko belarran
zamaketan.*



amak beti esaten zuen lehen askoz ere politagoa zela Orantzaro. Orduan, gure ama-eta txikiak ziren garaian, panpina goitik behera eskuz egiten zen. Aurpegia egiteko tela bat margotzen zuten eta begietarako botoiak josi. Gainera, urtero berria egiten zen, desberdina. Jendeak sekulako lana hartzen zuen; dena sortzen zuten. Gero bat-batean igeltsuarekin aurpegia egiten hasi zirenean, eta bakarra, gure amak-eta esaten zuten hori ez zela hemengoa. Kexu ziren».

Irakurritako iturrietatik eta entzundakoetatik gero eta gehiago sakondu zuten. «Jose Migel Barandiaranen garaietatik Leitzakoari buruz jasotako guztia bildu, eta hori kontrastatzen saiatu gara zaharrei galdetuta. Puzzle bat osatu dugu erabat desberdina».

Ataungo apaizak bere beaurrekoekin aztertu zuen tradizioa. 1920. urtean ibili zen Leitzan eta batzuek panpina gonarekin eta bertzeek galtzekin jantzen zutela jaso zuen. Ez zion horri jaramon gehiagorik egin. «Panpina emakume irudian orokortasun batean hemengoa dela dirudi, baina Leitzan edo Leitzaldean izaten ahal da. Guk Leitzakoa jaso dugu», argitu dute Alkeko lagunek.

40 TESTIGANTZA INGURU

Duela zortzi-hamar urte 40 bat elkarrizketa egin zituzten herriko adinekoekin. Batzuek argi eta garbi erraten zuten halako etxetan emakumea jartzen zutela sorgin jantzita, edo jostun, edo segalari. Sormenaz gain, garaiko modak islatzen zituzten panpinek. Aristokraziako ezkontza ponpoxo bat izan zela



Irudiotako Orantzaroak duela hamar urtetik honakoak dira. Goian, emakumea, erdian almadiazaina eta azpian dantzaria eta sorgina. Erdiko irudi ttikia, aldiz, zaharra da, oraingoz topatu duten bakarra. Amerikan jantzitako Orantzaro bat da. Garaian garaiko modak islatzen dituzte orantzaroek eta indiano ugari ibili zen orduan herrian.

ALKE KULTUR ELKARTEA

behin eta horren gisako Orantzaro bat jarri zutela dio testigantza batek.

Hemen indiano ugari zegoen eta amerikano jantzitako Orantzaro baten argazkia lortu dute. 1949. urteko Leitzako festetako programa ere topatu dute. Ezizenarekin sinatzen duen eta oraindik nor den ez dakiten norbaitek bere kronikan kontatzen du urte horretan Orantzaro guziak festei lotuta egin zituztela, istorio bat osatuz. Lehenengo etxean, behealdean, baserritar bat jarri zuten bizarra kentzen, bertze etxe batean aizkolari bat, urte hartan Leitzako aizkolari batek txapelketa bat irabazi zuelako, goraxeagoko etxe batean txistulari bat zegoen, eta bukaerari, goian, festetako amaiera bezala gazte bat ikusten omen zen tristerik.

TXINTXOA ETA GAIZTOA

Barriolak aipatu du hemen, Euskal Herri osoan bezala, Olentzero hitza gailendu zela baina eurek «Orantzaro begigorri» aditzen zutela etxean. Orantza legamia da eta aroa garaia. Jatea, ogia egitea, oparotasuna adierazten du. Herrian Orantzaro beti txintxoa zen; panpina jarri gero zorte ona ematen zuen. Baserrietan, aldiz, gaiztoa zen: haurrak ez baziren txintxo portatzen, tximiniako zulotik etorri eta eraman egiten zituela erraten zen. Sua mugitzen bazen Orantzaro inguruan zela pentsatzen zen. Panpina goi batean jartzen zen, balkoian, leihoan edo tximinian.

1986an leitzar emakume batek, Maria Jesusek, Orantzaroaren festaren aldaketaz idatzi zuen. Salatzen zuen duela 60 urte inguru Leitzako tradizio hain aberatsa lehiaketa batera eraman zutela. Saria



beti eredu zehatz bati ematen zioten, hain zuzen herrikoa ez zenari, gizonezko ikazkinari. Maria Jesusen etxeko bal-koian emakume dotorea jarri zuten, saskitxo bat besoan, eta purrustaka hartu zuten: «Beño, beño, nola okurrittu zatzo emakumea ittea?». Aberastasuna galtzen hasi zen, eta jendea lotsatzen.

1986an, idatziaekin batera, Maria Jesusek-eta emakumez-ko Orantzaro egin zuten. «Hori izanen zen segur aski garai honetara arte emakumez jantzitako azkenekoa. Gero bola-da batean ikazkinak jarri ziren beti eta duela hamar urtetik berriz hasi da zabaltzen», agertu du Barriolak.

Duela hamar urte elkarrizketatutako emakumeek 80 urtetik gora zituzten eta, hortaz, gehienak jada falta dira.

Bitxia da herritarrek uste zutela herrian bakarrik jartzen zirela orantzaroak, baina ohar-tu ziren baserrietan ere bazela

tradizioa. Ikertzen hasi eta ikusi zuten auzo guztietan jartzen zirela orantzaroak, herrian bezainbertze edo gehiago. «Askos kutsu erlijiosoagoa zuen. Gehiago zen sua, enbor handi bat eramatea eta sukaldean erretzea eta agian denbora dexente irautea. Orantzaro panpinaren sorrera izan daiteke, enbor hori apaintzen hasi zirelako».

ENBORRA ETA KALABAZA

Orantzaro-enborrak dotorea izan behar zuen. Baserriren batean aipatu diete barrene-raino sartzen zutela bi behik lagunduta, sala erdian izaten baitzen sua. Agian 15 egun irauten zuen erdi pizturik erdi itzalirik. Elementu hori antzerkian berreskuratu dute.

Testigantza batzuek diote etxeko bakoitzak enbor handi horren kontra arrail bat jarri behar zuela (egurra aizkoraz haustean gelditzen den zatia), zorte eta osasun ona izateko

eta Orantzaro ospatzeko. Zaharrenak handixeagoa jartzen zuen, adinaren arabera-koa zen tamaina. Zenbait etxetan kalabazak jartzen zituzten. Barrua hustu, bi zulo egin eta kandela bat sartuta, begi gorriak ikusten zitzaizkion. Orantzaro batzuei buru gisa jartzen zieten kalabaza. Urrutitik mamuak ziruditen, gaueko piztien antzeko begi gorriekin. Onaren eta gaiztoaren arteko izaera bikoitz hori zuten. Ez ziren ez gizonak ez emakumeak. Bizi labu-

Alkeko kideei testigantza eman dieten emakume leitzar batzuk, duela urte batzuk liburutegian, emakumezko Orantzaro giblean, egin zuten aurkezpenean.
ALKE KULTUR ELKARTEA

«Olentzero estandarra ongi dago, baina guk badugu gurea eta hori gordetzea eta indartzea da egokiena. Oso berezia eta polita iruditzen zaigu, bere zentzu guztiarekin»

Bihar iluntzean egingen den antzerkia jasotako elementuekin osatuko dute: sua, izaki mitologikoak, Orantzaro begigorriren kanta... Gonbidatuta dago nahi duena ezagutzera

rra zuten, egun batekoa baka-rrik.

San Joan gauarekin antz handia zuen, baserri batzue-tan sua barrenean eta kanpo-an egiten baitzuten. Kanpoan saltatu eta guzti egiten zuten 24 iluntzean. Suaren ondoan orantzaro txiki bat jartzen zu-ten, orantzaro-ninia. Etxe ba-tzuetan bere jai propioa egiten zuten, kutsu intimokoa.

Egun horretarako oilo bat gordetzen zen, edo axuri buz-tana, eta otordu berezia egiten zen. Opariaren kulturarik ez zegoen, baina bai aipatu izan diete etxeko aitak espartinak edo galtzerdiak estreinatzen zituela eta horrekin batera de-taileak egiten zirela. Adibidez, amonak umeentzat gailetak prestatzen zituen txokolate pixka batekin. Ze festa!

Eta orain, nola berreskuratu tradizioa hainbertze aldatu den ospakizunean? «Informa-zio ahalik eta gehien zabalduz. Ez da erraza. Telebistak eta kultura orokorrak izugarritzko eragina dute. Errotuta dago Olentzerok ikazkina behar duela. Baina lanketa honen ha-rira jendeak etxean galdetu du eta ohartu da egiten zela. Ilu-sioz hartu dute Leitzako eredu hau eta berriz ere, zorionez, dantzariak, sorginak, almadia-zainak edo txistulariak ikus-ten ari gara. Kalabazak ere bai.

Bihar iluntzean (18.30ean) egingen den antzerkian ere iza-nen dira kalabazak. Jasotako elementuekin osatuko dute ekitaldia: sua, hemengo izaki mitologikoak, arrailen jartzea dantzariekin... Herriko kanta ere abestuko dute. Adineko jendeak gaztetatik aditu gabe izan arren ongi oroitzen due-na eta emozio handiz hartu duena. Gonbidatuta dago nahi duena tradizio berritu polit honen magian sartzera.